

DANTZAN BILAKA 2021-2022KO BATZORDEKIDE IZATEKO ERRELEBO DEIALDIA

Nori zuzendua Euskadiko dantzaren eta koreografia-sorkuntzaren alorreko profesionalentzat. Hautagaitzak gauzatzeko, honako hauek bidali beharko dira: curriculuma eta motibazio-gutuna. Beharrezkoa bada, elkarriketa pertsonalak egingo dira.

Deialdia Deialdi honek, Dantzan Bilakaren 2021eko eta 2022ko edizioetarako koordinazio batzordea txandakatzea du helburu. (ikusi beherago eskaera)

Aurrekariak 2016ko edizioaz geroztik, hiru pertsonako talde batek koordinatzen du Dantzan Bilaka programa, eta horiek arduratzen dira programa posible egiten duten lan guztiez. "Laguntza eta koordinazioko" Batzorde hori programa egituratzen duten koordinazio- eta diseinu-lanez arduratzen da, bai eta programan garatutako sormen-prozesuen jarraipenaz ere. Batzorde horrek errotazio-sistema bati jarraitzen dio, eta, horri esker, pertsona berriak pixkanaka sartzen dira, Dantzan Bilakaren koordinazioan aurretiko esperientzia duen talde bat bermatzen delarik.

2020ko edizioan, Maria Ibarretxe, Luciana Chierigati eta Ion Munduate izan dira batzordeko kideak.

Duela lau ediziotik hona, jardunaldiak lurralde bakar batean biltzen dira, eta, horrela, programa urtero EAEko hiru hiriburuetarara zabaltzea planteatzen da. 2020an DB Bilboko Azkuna Zentroan egin zen, 2019an Donostiako Tabakalera eta 2018an Gasteizko Artiumen. 2021eko hurrengo edizioa Gasteizko Artiumen izango da. Txanda-deialdi honen helburua batzorde artistikorako kide berri bat hautatzea da, Maria Ibarretxek eta ADDEren bulegoak osatzen duten egungo eraketari gehituko zaiona.

Lanerako baloratzen diren ezaugarri orokorrak:

- Sormen koreografikoaren arloan esperientzia egiaztatua.
- Proiektuak eta ideiak aztertzeko, hausnartzeko eta egituratzeko gaitasuna.
- Bizilekua Euskadin izatea. Aurrez aurreko eta online topaketetarako prestasuna. Egutegi pertsonalean ordutegi malgutasuna eta doakuntza.
- Administrazio-kudeaketako lanetan esperientzia izatea.
- Esperientzia proiektuak ekoizteko zereginetan.
- Taldeak koordinatzeko gaitasuna.
- Programaren komunikazio-gaitasuna (idatzizkoa eta ahozkoa) eta aurkezpen publikoa.
- Dantzaren sektoreak Euskadin gaur egun duen egoera ezagutzea.
- Euskal Herriko dantzaren testuinguruarekiko interesa, gogoeta, konpromisoa eta erantzukizuna.
- Euskal Herriko dantzaren testuinguruarekiko interesa, gogoeta, konpromisoa eta erantzukizuna.

Dantzan Bilaka batzordearen barruan bete beharreko ardurak eta zereginak

DB (Dantzan Bilaka)ren eginkizunen garapenak eta betearazpenak batzordearen bi kideen eta ADDEko bulegoko 2 kideen artean banatuko dira, beti ere, EJ-rekin eta jardunaldiak jasoko duen espazioarekin elkarrizketan.

Dantzan Bilaka programa diseinatu, koordinatu eta gauzatzeak lau lan-arlo biltzen ditu:

1. LAGUNTZA ARTISTIKOA:

Laguntza artistikoaren ezaugarri espezifikoak:

- Material eta ideia artistikoak garatzen laguntzea.
- Jardunaldietan proiektua aurkezteko moduari buruzko gogoetan laguntzea.
- Proiektua argitalpenean islatzeko moduari buruzko gogoetan laguntzea.
- Entsaioetara bertaratzeak/ Skype bidez elkarrizketak/ telefonoz edo emailaz Komunikazioak.
- Proiektu artistikoaren berezitasunak jakinaraztea batzordeko gainerako kideei, koordinatzaile teknikoari eta aurkezpen-guneen arduradunari.



2. ESPAZIOAK ETA TEKNIKA

Ikus-entzunezko erregistro-materialaren, teknikaren eta aurkezpen-espazioen koordinazioa. Lan hori espazioaren arduradunarekin, teknikariaren arduradunarekin eta ikus-entzunezko dokumentazioaren arduradunarekin koordinatuta egingo da.

3. AGERKARIA ETA KOMUNIKAZIOA

DB-ren argitalpena koordinatzeak edukiak artatzeko eta lan hori egiten duten faseak eta pertsonak (sortzaileak, diseinatzaile grafikoa, itzultzailea...) koordinatzeko gaitasuna dakar. Hauek dira zeregin nagusiak:

- Agerkaria, batzordearekin eta diseinua egingo duen pertsonarekin koordinatu hartu-eman zuzenean.
- Agerkarirako behar diren materialen bidalketaren jarraipena egin.
- Agerkariak eta kartelak banatzeko zerrenda ikuskatu (batzordearekin, ADDEekin eta Ejurekin batera)
- Programaren prensa dosierra eta presntsa oharra idatzi.
- Agerkariaren sarrerako testua idatzi (batzordearekin elkarrizketan)
- ADDEekin komunikazioari buruzkoak koordinatu: Komunikabideak, prentsa...
- Programaren prentsaurrekoa prestatu eta aurkezpena burutu.
- Aurkezpenen ikus-entzunezko dokumentazioa batzordearekin batera koordinatu.

4. EKINTZA PARALELOAK

Ekintza paraleloen diseinua, ekoizpena eta koordinaketa. Eginkizun horiek DB batzordeko beste kidearekin batera egingo dira.



5. ITXIERAKO LANAK / AZKEN EBALUAKETA

Urteko ekintzei itxiera emateko behar diren eginkizunak. Honakoak izango dira:

- Programaren koordinaketaren barne ebaluaketa.
- Partaideekin ebaluaketa bilera edo galdeketa.
- Ebaluaketa bilera: DB batzordea, ADDE eta EJ.
- Batzorde berriarentzako deialdiaren idazketa.
- Batzordeko kide berriren hautaketa prozesuan parte hartu.

6. PROGRAMAREN ORAINA ETA ETORKIZUNA HAUSNARTU.

Eginkizun honek, programaren etorkizuneko hobekuntzaren konpromisoan programaren edukiaren berrikuste lanak eta prozesu elementuen implementazio zereginak jasotzen ditu.

Eginkizun hori, oinarrizko soldatatik kanpo ordainduko da.

7. BESTEAK. 2022 DANTZAN BILAKA PROGRAMAREN DEIALDIA:

- Deialdia idaztea eta Eusko Jaurlaritzarekin adostea.
- Deialdia argitaratzea (ADDEren bulegoa)
- Dantzán Bilaka 2022 programaren proiektuak hautatzea.

**CONVOCATORIA DE RELEVO
para formar parte de la
COMISIÓN DANTZAN BILAKA 2021**



Eskaera

Konpromisoak 2 urte hartzen ditu: DB 2021, DB 2022 edizioak.

Edizio bakoitzeko lan-denboraldia, pertsona hautatzen denetik (abendu bukaera - urtarrila) jardunaldien itxiera arte izango da (azaroa).

Bitarteko tenporalak

Gutxienez hilean behin bilera presentzial bat (bi izatea gomendagarria). Bilera horiek batzordeko kideekin, Eusko Jaurlaritzarekin, ADDEren batzordearekin edo jardunaldiak jasotzen dituen espazioaren arduradunekin izan daitezke. Etengabeko erabilgarritasuna posta elektronikoko bidezko harremanean (mezuen erantzunak).

Egoitza-asteetan parte hartzea: otsailak 8-14/ maiatzak 24-30/ irailak 4-8/ urriak 8-10 jardunaldiak.

Soldata 5.000 euro + BEZ

Oharra

Dantzan bilaka 2022 programako proiektuak hautatzeko lana eta 2021eko edizioako dieten, bidaien eta ostatuen gastuak ez daude jasota jaso beharreko soldatan, eta gehigarri bezala ordainduko da.

Bidali beharreko eskaera

Honako helbidera bidali behar da: info@addedantza.org

- CV (ibilbide artistikoa eta proiektuen kudeaketan eta koordinazioan izandako praktika aipatuz)
- Motibazio gutuna.
- 2021 egutegiaren erabilgarritasuna.

Epeak

- Eskaerak bidaltzeko: Azaroaren 17tik Abenduaren 4ra.
- Hautaketa jakinaraztea Abenduaren 14ko astean.

**CONVOCATORIA DE RELEVO
para formar parte de la
COMISIÓN DANTZAN BILAKA 2021**

